

Udako Euskal Unibertsitatea 2011ko uda

### **“Auzolana eta Herrigintza” ikastaroa:**

Auzolana, begirada historikoa (Jasone Mitxelorena)

Auzolana herriaren alde herritarrek elkarlanean egiten duten lana dela ulertzen dugu. Historikoki, herritarren eginbehar gisa funtzionatu du, eta tokiko erakundeak izan dira hori antolatzearen arduradunak. Hala ere, ezin dugu ulertu herriari ezarritako betebeharrak gisa, herritarrek eurek aukeratutako sistema gisa baizik. Baieztapen hau argudiatzeko, honakoa aipatuko dugu: Gaur egun erakundeek ezarritako auzolanak toki gutitan irauten du, eta aldiz, aunitz dira euren beharrei erantzuteko auzolanera jotzen duten herritarrek.

Euskal Herri osoan garai batean erabat zabaldua zegoen jarduera dela erran dezakegu, egun bizirik dauden kasuek hala adierazten baitigute. Auzolan, auzalan (Sakanan eta Tafallaldean), aizelan (Pirinioez iparraldeko hainbat herritan), orzalan (Lizarraldean), “vereda” (Arabian eta Lizarraldeko zenbait herritan) eta “concejil” (Nafarroa Garaian, agiri ofizialetan) izenak dituela jakin ahal izan dugu, eta tokian tokiko berezitasunak izan baditzake ere, hasieran aipatutako definizioa guztiei egokitzen zaie.

Euskal Herriatik kanpo, Galizan eta Asturiasen “andecha” erraten dioten sistema eta Gaztela-Leon lurraldeko iparraldean hainbat herritan egiten duten “hacendera” auzolanaren baliokideak izanen lirake; horiez gainera, Pirineotako bertze hainbat eremutan ere (Andorra, Sobrarbe...) omen daude antzeko sistemak (guk ez dugu horiei buruzko informaziorik lortu). Zenbaitek ezaugarri komunak antzemanek Kantauriar-Pirinear eremu gisa izendatu dutenean koka dezakegu auzolana.

Europar auzolanaren baliokiderik dagoenik ez dugu jakin ahal izan, Irlandan “coor” erraten zaion sistema bat salbu; aldiz, Hego Amerikako jatorrizko herrietan badira egun indarrean dauden auzolanaren gisako lan-sistemak: Mingaco (Txile), Minka (Peru), Tequio (Mexiko)... harrigarria egin zaigu horiek auzolanarekin duten antzekotasuna. Afrikan ere, Kenyan zehazki, harambee erraten dioten sistema auzolanaren baliokidetzat har dezakegu.

Euskal Herriari dagokionez, auzolanak herritarren betebeharrak gisa funtzionatu du duela zenbait hamarkada arte, eta hala izaten segitzen du hainbat herritan. Herrietako azpiegitura komunak zaindu, moldatu edo eraikitzeko antolatzen dira auzolanak; urteko egun jakinetan, edo maiztasun batekin, lanek eskatutakoaren arabera. Horiez gainera, larrialdi uneetan ere deitu zitezkeen auzolanak.

Betebeharrak hori herrietako ordenantzetan jasotzen da, baina badira horiek gabe ere auzolanak funtzionatu duen herriak. Historikoki legedian jasota egon dela badakigu (Foruetan), eta horren lekukotasunik antzinakoenak Nafarroako Artxibo Nagusian aurkitu ditugu: Han ezagutzera eman diguten auzolanari buruzko idazkirik zaharrena 1561. urtekoa da, auzolana ez egiteagatik zigortua izan den herritar baten salaketak abiatutako epaiketari buruzkoa. Artxiboan dozena bat idazki ezagutarazi dizkigute, guztiak ere auzolanaren eginbeharra ez betetzeagatik herri-erakundeek ezarritako zigorrez kexu diren biztanleenak. Azkena 1832koa da. Gaur egun, Nafarroa Garaian Herrietako Administrazioari dagokion legedian jasotzen da herri-erakundeek auzolana ezartzeko aukera.

Betebeharrak horrek indarra galdu du 1960ko hamarkadatik hona, eta gaur egun Arabako eta Nafarroako herri txikietan, hainbat herritan, eta hiritan (Tafallan, nekazaritza-alorrean), baizik ez dago. Hala ere, jakin ahal izan dugunez, betebeharrak gisa ez egonda ere auzolanak egiten diren herriak eta kasuak aunitz dira Euskal Herrian; bai betidanik hala aritu direlako, eta bai azken urteetan lan-modu hori berreskuratu egin dutelako ere.

Auzolanean egin izan diren, eta kasu aunitzetan, egiten diren, lanen artean, bideak txukuntzekoak nagusitzen dira: Baserrietako, mendietako eta landa-eremuko bideak auzoka antolatutako herritarren ardura izaten dira. Horiekin batean, herriko zenbait azpiegitura eraikitzeke edo moldatzeko lanak ere ageri zaizkigu: Iturriak eta askak, uharkak, zubiak, zenbait baseliza edo eliza, herrietako plazak... Zabaldua ageri zaigun ohitura da, halaber, herriko bestetarako karrikak txukuntzeko auzolana. Lizarra aldean, adibidez, herri ttiki aunitzetan ohiturazko auzolana galdu egin bada ere, oraindik segitzen dute bestetarako herria txukuntzeko auzolanek.

Bertzalde, egun galduta dauden jarduerak badira ere, auzolanean egin izan dira mindegiko lanak (zuhaitz-haziak erein eta landarea haztean mendian landatzea), kisu-labeenak, kalteak egiten zituzten hainbat animaliren ehiza... Etxalarren adibidez, duela berrogeita hamar bat urte negu aldera *mindegikoak* egiten ziren, eta udaberrian berriz, bideak garbitzekoak.

Tafallaldean, 1414. eta 1680. urteen artean auzalanak deitzen ziren otsoen eta oti-intsektuaren aurka egiteko. Hainbat herritako biztanleak elkartzen ziren lan horietarako. Berueten ere duela berrogeita hamar bat urte ohikoa omen zen satorrak eta azeriak akabatzeke auzolanak deitzea. Kasu hortan, ordaindu egiten zen lan hori, eta kopuruaren arabera ordaintzen zenez, bakoitzak harrapatutako animalien buztanak erakutsi behar zituen. Hauek kasu bitxiak iruditu zaizkigulako kontatu ditugu; honekin erran nahi duguna edozein gisako lanak auzolanean egin izan direla da.

Auzolana hitzaren erranahia aztertzerakoan, auzo hitzak adierazten duena ulertzea ezinbertzekoa da. Auzoak bata bertzearen ondoan bizi diren herritarrak izendatzeko erabil dezakegu, baina baita herriaren aitzinean Etxea ordezkatzen duena izendatzeko ere ("bezino" gisa ageri da idazkietan). Izan ere, herri bateko biztanleak *auzo* eta *biztanle* gisa sailkatu izan dira historikoki, XIX. mendean auzo titulua baliogabetu zen arte (Nafarroa Garaiaren kasuan).

Erran dugunez, bata bertzearen ondoan bizi direnak izendatzen ditu auzoak, baina auzo izateak sortzen dituen harremanen berezitasunak aintzat hartuz gero, berehala ohartuko gara zerbait ere gehiago erran nahi duela. J. M. Barandiaranek erran omen zuenez, eskubideak eta betebeharrak ditu auzoak, eta horiek idatzi gabeko arau gisa funtzionatu dute Euskal Herrian, belaunaldiz belaunaldi. Hainbat erranairuk auzo-harremanaren garrantzia adierazten dute: <<Auzo ona, adixkide ona>>; <<Urrutiko parientia baino, auzoa beinago>> eta bertze batzuek.

Eguneroko lanetan, etxe batekoek bertzekoa laguntzen zuten, hurrengo aldian laguntza hori jasotzeko. Hala izan da lurra laiatzeko, belarra eta uzta biltzeko eta bertze hainbat lanetan. Egunerokoaz gainera, une garrantzitsuetan (jaiotza, ezkontza, heriotza, gaixoaldiak...) ere auzoak izaten ziren eginbehar nagusiez arduratzen zirenak.

Hainbat behar asetzeko auzoak elkartu egiten ziren, eta horren erakusle dira historikoki izan diren gisa guztietako auzo-elkargoak. Horietan garrantzitsuenak, beharbada, etxe-erreen elkarteak dira: Etxe bat erretzean auzoek auzolanean egiten zituzten konponketak, beharrezko materiala ematen zitzaien kaltetutakoei (herri-lurretako oihanetik egurra ateratzeko aukera emanez, adibidez), eta laguntza hori emateko helburua zuten aipatutako elkarteek ere: Kideen ekarpenari esker kalteak ordaintzeko beharrezko finantzabidea lortzen zen. Elkarte horiek zenbait herritan egun indarrean diraude, eta auzoek kudeatutako aseguru-etxetzat har ditzakegu.

GIZARTE-ANTOLAKUNTZA

Auzolana gizarte-eredu jakin baten lan-sistema da. Horregatik, auzolana bere testuinguruan ulertarazteko asmoz, jarraian Euskal Herriak historikoki garatu duen gizarte-antolakuntzaz mintzatuko gara.

Gai hortan lanean aritu da, bertze batzuen artean, Mikel Sorauren, Iruñeko historialaria. Berak dioenez, <<auzolana herritarrek herriari egiten zizkioten ekarpenen artean lan fisikoari dagokiona da>>, eta sistema honek erakusten duena <<kolektibitatean antolatutako herria>> da. Hau da, herria herritarrek osatutako talde gisa ulertuta, horiek Batzarra erakundean biltzen ziren, herriari zegozkion guztiak eztabaidatu, erabaki eta kudeatzeko.

Batzarra zen, herrian beharrezkoak zirenak egiteko, auzolana ezartzen zuena; Batzarrak biltzen zuen, herritarren ekarpenaren bidez, herriak beharrezko zituen baliabideak lortzeko ondasuna (dirutan edo gari kopurutan); Batzarra arduratzen zen herriko zerbitzuez (mediku, irakasle, apaiz eta bertzelakoak kontratatzeaz eta haragi, ardo edo ogi saltokiez); Batzarrak kudeatzen zituen herri-ondasunak (herri-lurretako oihanak eta bazkalekuak) eta Batzarra bera zen herriko segurtasunaz arduratzen zena (otsoaren mehatxua eta lapurretak).

Gorago azaldu dugu auzoen eta biztanleen arteko ezberdintasuna. Auzoa Etxearen ordezkaria zen, eta hala izanik Batzarrean parte hartzen zuen. Biztanleek ez zuten horretarako eskubiderik. Hau ulertzeko ezinbertzekoa da gizarte-antolakuntza hartan Etxeak zuen garrantzia ezagutzea.

Etxea ekonomiaren oinarrizko ekoizpen-gunetzat har dezakegu: Etxebizitzak, abereendako ikuiluek, ereiteko landek, bazkalekuek eta etxeko kideek osatzen zuten Etxea. Ondasun banaezina zen, banatu ezker eraginkortasuna galdu eta hondoratzeko arriskua baitzuen. Hori hala izanik, Etxea oinordeko bakarraren esku uzten zen, haren ardurapean funtzionamendu egokia bermatzeko. Gainerako seme-alabek, kanpoan bilatuko zuten ogibidea, edo bertze etxe batean kokatuko ziren. Norbanakoaren interesen gaitetik zegoen Etxearena.

Etxeak betebeharrak eta eskubideak ematen zituen: Betebeharrak, hura zaindu eta beharrezko lanak egitekoa. Soldata bila kanpora joanez gero ere, Etxera bidali behar zen horren zati bat, Etxeak ematen zituen eskubideez gozatzen segitu nahi izanez gero, behinik behin. Eskubideak, jan-edanak, lo egiteko lekua, jantziak, ezkontzarako-dotea edo bertze etxe batean kokatzerako behar adinako ondasunak izatekoa ziren (etxean bizi ziren gazteentzat urtez urte hainbat ondasun gordetzen ziren, gazteak, etxetik joan ahal izateko, beharrezkoak zituenak eduki zitzaizkien).

Etxeko kideak talde gisa eratzen ziren moduan, herrian ere kolektibitatean antolatzen ziren, lehenago erran dugunez. Batzarra zen oinarrizko antolaketa, eta Batzarrak erabakitakoa betearazteko edo horrek eskatutakoak kudeatzeko zinegotzia izendatzen zen -errejidorea erraten zitzaion-. Figura hori norbaitek alkatearekin aldera dezake, baina Soraurenek zorrotz ohartarazten du ezberdintasuna: Egungo Udalek -eta sarri, alkateek bakarrik- eskumen osoa dute herriari dagozkionak erabaki eta kudeatzeko; aldiz, aipagai dugun gizarte-antolakuntzan, herritarrek osatutako Batzarra zen horretarako ahalmena zuen bakarra, eta zinegotzia hark agindutakoa betetzera mugatzen zen, ez zeukan bere kasa aritzeko eskumenik.

Kargu hori eta bertze batzuk aukeratzeko prozedurak zakuratzea edo bozka bidezkoa izaten ziren -batzuetan biak elkartuta egiten zen; lehendabizi zakuratzearen bidez lau-bortz izen atera eta horien artean aukeratzeko, bozka-ematea eginez-.

Herrian beharrezkoak ziren zerbitzuez Batzarra arduratzeak elementu interesgarriak ditu: Medikua eta irakaslea Batzarrak kontratatzen zituen, eta herriaren izaerari eta hango beharrei egokitzen zirenak behar zuten. Ematen zuten zerbitzuaren kalitatea

ziurtatzeko, epe laburreko hitzarmenak egiten ziren -datu hau Pello Apezetxea, Etxalarko apezarengandik jaso dugu-.

Soraurenak aztertuakoaren arabera, garai bateko herritarrek arduraren handia erakusten dute zerbitzu horiekiko, eta historikoki herririk ttikienak ere izan dituela azpimarratzen du, gaur egun ez bezala. Zerbitzu horiek ordaintzeko, herritarren ekarpena biltzen omen zen.

Batzarraren arduraren ziren, halaber, baliabide nagusiak, herri-ondasunak izan ohi zirenak. Jakinaenez, herri-lurren sistema izan da Euskal Herrian, eta horrek zera ahalbidertu du: Herritarrek bazkalekuak eta landa-eremuak ordaindu beharrik gabe erabili ahal izatea (biziraupenerako oinarritzakoa zena) eta oihanetik sutarako egurra eta jateko fruituak biltzea. Herriarentzat diru-iturria ere baziren herri-lurrak: Oihanetik egurra ateratzen zen kanpora saltzeko, eta bazkalekuak errentan ematen ziren, inguruko herrietakoek erabili nahi izanez gero ordaindu egin behar izaten baitzuten.

Herriarenak ziren, kasu aunitzetan, errotak, eta baita burni-olak ere (horiek izanez gero). Horien zaintza errentan ematen zen. Tabernak, okindegia, harategia eta bertze saltokiak ere gisa berean kudeatzen ziren; horiek herri baten diru-iturri nagusietakoak ziren. Kanpotik ekarritako salgaien gaineko zergak ere ordainarazten ziren. Kudeatze horrekin, alde batetik, herriaren hornikuntza ahalbidetzen zen, eta bertzetik, erosi beharreko gaien prezioa kontrolatzeaz gainera, zergen eta errenten bidez herriarentzat diru-iturria lortzen zen.

Herrietako segurtasunari buruz, honakoa jaso ahal izan dugu Etxalarren: Herriko Etxean armak izaten ziren, eta otsoak edo lapurrak zebiltzala sumatu ezker, herritarrek horiek hartu eta taldetan antolatuta abiatzen ziren horien aurka. Tafallaldeko kasuari buruz erran dugunez, lan horietarako hainbat herri elkartzan ziren, eta horiek auzolan gisa kontu zitezkeen.

Gizarte hark beharrezko kolektibitatean asetzeko zuen joera azpimarratzen du Soraurenak. Horren erakusle da guztia erabaki eta antolatzen zen Batzarra, herriaren beharrik kolektibo gisa asetzeko antolakuntza-egitura baita. Aipatu dugu finantzabidea lortzeko herritarren ekarpena egiten zela, eta herriarentzako ekarpenaz gainera, sarri herritarrek euren artean elkar laguntzen zuten: Euren arteko maileguak ohikoak ziren, eta adibidez, urte batean etxe bat ereiteko garirik gabe gelditu bazen, hainbat herritarrengandik jasotzen zuen hazia, behin uzta bildutakoan mailegu hori itzultzeko baldintzapean. Soraurenak ohartarazten duenez, mailegu horiek oraingoak baino puska bat zuzenagoak izaten ziren, eta ordaintzea ezinezkoa zenetan, zor zen kopuru zehatza baino ez zen eskatzen; hau da, ez zen gertatzen, gaur egun bezala, ondasunak hipotekatu eta zerbait ezin ordaindu dela-eta etxe osoa galtzea.

Herritarrek elkar laguntzen zutenaren adibidea dira, halaber, lehenago aipatu ditugun etxe-erreen elkarrekin eta hainbat zereginetarako eratzen ziren kofradiak ere.

Mari Carmen Basterretxea antropologoak ere ohiturazko euskal gizartean guztia auzoekin partekatzen zela jakinarazten digu, eta oraindik ere irautean dutela horietako hainbat jarduerak (Auzolan. Cultura Vasca artikulua, argitaratu gabea). Berak honakoa aipatzen du: Arrantzaleen artean, arrantza ona suertatu eta arrantza-gaia soberan izatean, auzoen artean banatzen da. Txerri-pusken banatzea ere adibide horrekin aldera dezakegu.

Ondasunen banatze horrek oreka ahalbidetzen du, gure ustez. Ondasunak partekatu egiten dira, horiek herritarren artean modu orekatuan banatuak izan daitezkeen. Guztiek herri-lurrak erabiltzeko eskubidea izateak ere berdintasunezko eraketa erakusten du. Auzoen eta gainerako biztanleen arteko banaketa egin izan bada ere, hemen azpimarratu behar dugu denek aukera berak ez izanda ere, guztiek zutela

herriko baliabideak erabiltzeko eskubidea. Eta, adibidez, gutien zuten etxeei, arreta berezia ematen zitzaien.

Behin garai bateko gizarte-antolakuntzaren azalpen xume hau eginda, beharrezkoa iruditzen zaigu aurkeztu ditugun egitateak historian kokatzea. Zaila da gizarte-antolakuntza hori noiz eratu zen, eta nola garatu, jakitea, baina argi izpi batzuk eman ditzakegu.

Soraurenak Nafarroako Erresumarekin lotzen du euskal gizarte-antolakuntza, eta beraz, gutienez IX. mendean kokatu beharko genuke hastapena. Hala ere, berak aitortzen duenez, <<kolektibitatea erregearen aitzinetik dago>>, eta beraz, pentsatzekoa da Erresuma sortu aitzinetik ere herri-mailako gizarte-antolakuntza iada eratuta zegoela. Jakue Paskualek eta Patxi Azparrenek berriki argitaratu duten artikulu batean (Auzolan y Batzarre) horixe baieztatzen dute: Estatu-boterea - Erresuma gisa- sortu aitzinetik bazegoela herri-antolakuntza, eta behin erresumak eratuta ere, jatorrizko erakundeek euren boterea defendatu izan dutela, erregeen gehiegizko esku-hartzeen aitzinean.

Bai Soraurenak eta bai aipatutako egileek ere, bakoitzak bere moduan, honakoa nabarmentzen dute: Herria bere botereaz jabetzen zela, edo, bertze modu batean erranda, herriak bazituen erabakitze eta auto-antolatze eskubideak, eta horiek zaintzen zituen. Erregea bera botere hori aitortzera behartuta zegoen (Foruak zainduko zituztela zin egin behar izaten zuten, <<nafar herri osoaren>> aitzinean). Erregeen gehiegikerien aitzinean, Infantzoiak matxinatu egiten ziren, boterea herriari itzultzeko; ezaguna da Infantzoiaren aldarria: <<Pro libertate patria gens libera state>> (Aberri askearen alde, jendea libre jaiki). Horrez gainera, Nafarroako Erresumaren goi-erakundeetan herriak zuen parte hartzea goraiatzen du Soraurenak: Nafarroako Gorteetan, Nobleziarekin eta Kleroarekin batean, "Bonas Villas" deitutako estamentuan hogeita hamahiru herritako ordezkariak eserlekua zuten.

Gipuzkoan, Araban, Bizkaian, Lapurdin eta Zuberoan Nafarroako Erresumatik kanpo eratu ziren Batzar/Biltzar nagusiek ere goi-erakundeetan herrietako ordezkariak zuten parte hartze zuzena erakusten dute.

Mintzagai dugun gizarte-antolakuntzari buruz xehetasun gehien ematen digutenak Foruak dira. Foruak Piriniotako Zuzenbidea erraten zaionaren idatzizko legedia dira. Horiek XI. mendean hasi ziren idazten, gaur arte dakigunez behinik behin, baina, eta legedi hori aztertu duten guztiak bat datoz honetan, herritarren artean ohiturazko arau gisa funtzionatzen zutenak jasotzen dituen legedia da. Hau da, legedia hori idatzi zuten goi-erakundeak sortu aitzinetik indarrean zeuden arauak jasotzen dira Foruetan. Soraurenak Nafar Zuzenbidea erran beharko genukeela dio, Erromatar edo Germaniar Zuzenbidea diogun moduan, legedia eratu duen herriari erreferentzia eginez, eta ez geografia-kokapenari (Piriniotako Zuzenbidea). Foruak Nafarroako Erresuma sortzearekin idatzi ziren. Egile honek dioenez, historian hain goiztiarra den garaian euskal gizarteak antolakuntza hagitz garatua zuen (zuzenbide idatzia izateak erakusten duenez), eta hori onartzea zaila egiten zaie historialari ofizial aunitzeri.

Felix Rodrigo Morak (Naturaleza, Ruralidad y Civilización) ere Batzarra aztertu du (berak Kontzeju Irekia erraten dio) eta bere ustean, erakunde hortan oinarritutako gizarte-antolakuntza VIII-IX. mendeetan sortu eta Erdi Aroan garatu zen. Bere hipotesiaren arabera, garai hartan Pirinioez hegoaldera agertu ziren monastegietatik gizartera zabaldu zen kolektibitatean antolatze modua. Guk hori ez dugu hain argi ikusten; izan ere, Elizaren barreneko erakunde horiek berdintasunezko gizarte-eredu baten sustatzaile zirenik zaila egiten zaigu sinisten: Eliza erakundearen agerpenak gatazkak sortu izan ditu, herritarrek aurre egiten baitzioten haren botere-goseari.

Honek erakusten duenez, herritarrek bazuten euren antolakuntza, ondasun kolektibo gisa eratzen ziren lurra eta bertzelako baliabideak, eta ez zuten begi onez ikusten Elizak edo jauntxoek egin asmo zuten jabetze pribatua. Horrez gainera, auzolanaren baliokideak Hego Amerikan edo Afrikan ere izateak, honakoa adierazten du, gure iritziz: Hagitz antzinako gizarte-antolakuntza baten sistema dela, eta Elizaren agerpena baino antzinagokoa, kontinente horietan Eliza garai berantiarrean agertu baitzen.

Bertzalde, Rodrigo Morak ez du onartzen Foruak -eta idatzizko lege oro- herri-antolakuntzaren islada direnik; bere ustez, idatzitako legedia estatuek euren boterea ezartzeko baliatu dute.

Honekin, gizarte-antolakuntza haren sorrera eta hasierako garapenari buruz erran dezakeguna azaldu dugu, eskasa bada ere. Orain, izan duen bilakaerari eta batez ere, gainbeherari buruz mintzatzea dagokigu. Rodrigo Mora zorroztasunez mintzo da Kontzeju Irekiaren gizarte-ereduaren galerari buruz, eta bere ustean, Erresuma gisa eratu ziren lehendabiziko estatuen agerpenean hasi zen gainbehera hura. Izan ere, ordura arte herritarrek zuten euren gizarte-eredua antolatzeko boterea, baina estatua sortzean, azken honek poliki-poliki herritarren boterea bereganatzeko dinamika hasi zuen.

Estatuari buruz orokorrean mintzo bada ere, Gaztelako Erresuma da bere baieztapenari hobekien egokitzen zaiona. Erresuma horren menpeko lurraldeetan Kontzeju Irekiak desagertu egin ziren, gehienak behinik behin. Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba lurraldeetan, horietako batzuek iraun zuten, baina hiri eta herri nagusietan Kontzeju Itxiak (hiribilduak) ezarri ziren; hau da, tokian tokiko oligarkiek gobernatutako herri-erakundeak. Egun, Arabako herri ttikiak Kontzeju Irekiaren izaerari eusten diote, baina horien eskumenak nabarmen murriztu dira, eskualde-mailako Udalen menpe baitaude.

Nafarroa Garaian, Gaztelak konkistatu ondotik hiru mendez erresuma izaerari eutsi baitzitzaion, Kontzeju Irekiak 1795 urtera arte iraun zuten. Urte hortan, 250 biztanle baino gehiagoko herri eta hirietan Hogeiko, Hamabortzeko eta Hamaikako Batzarrak ezarri ziren; hau da, tokiko oligarkiak osatutako herri-erakundeak. XIX. mendean batzar horiek ere desagertu ziren, eta egungo Udalen esku gelditu zen herrien kudeatzea. Herri ttikien kasuan, Arabari buruz erran duguna gertatzen da.

Gizarte-antolakuntza haren gainbeheraren lehendabiziko mugarrria jarri dugu: Estatuen sorrera, eta zehatzago, Gaztelako Erresumaren konkista. Pirinioez iparraldean, frantziar Estatuak, lehenago ere herri-erakundeen hainbat eskumen bereganatzen aritu bazen ere, 1789ko Iraultzaz geroztik abiatu zuen Estatua indartzeko dinamika, herritarren boterea sekula ez bezala bereganatuz.

Bigarren mugarrria, eta honetan bat datoz Sorauren eta Rodrigo Mora, liberalismoa izan zen, hau da, karlistadak galdu eta ezarri zen gobernu liberala. Egoera berri horrek Euskal Herriaren historian izugarritzko eragina izan du, eta halaber, pisu handia du jatorrizko gizarte-antolakuntzako erakundeen gainbeheran: Soldaduxka ezarri zen, aduanak Piriniotan jarri ziren (Europarekin zeuden merkataritza-harremanak hautsiz) eta Foruak hein handi batean baliogabetu ziren. Nafarroako Gorteak liberalismoaren agerpen-garai hortan desegin ziren, eta herrialdea Madrilgo Gobernuarekin harreman geroz eta estuagoa zuen Diputazioaren zuzendaritzapean gelditu zen. 1841ean onartu zen legedi berriak, "Ley Paccionada" deritzonak, ia ezerezean utzi zituen Foruak.

Hirugarren jazarraldi nagusia 1936ko gerrarekin ezarritako frankismoaren errejimenak egin zuen. Estatuaren boterea berrindartzeko ahaleginean, ohiturazko gizartearen ia erabateko desegitea gauzatu zen. Landa-eremuak hustu eta hiriguneetan pilatu zen jendea; ordura arte "enpresa autonomo" gisa funtzionatzen zuten nekazariak, abeltzainak, burdingileak eta gainerakoak soldatapean bertzeendako lanean hasi ziren, menpekotasun egoeran; jardueren mekanizazioak

ere menpekotasun horren alde egin zuen; herritarrek kudeatzen zituzten herri-lurren zuzendaritza Diputazioen esku gelditu zen, horien ustiatze intentsiboari bide eginez; nekazaritza eta abeltzaintza jardueretan ere eredu hori ezarri zen, eta geroztik desoreka larriak sortu dira ingurumenari, lan banaketari eta nola ez, ondasunen banaketari dagokienez.

Eta gure gaia den auzolanak ere garai hortan hasi zuen bere gainbehera, soldatapeko lanaren eta landa-eremuak hustearen ondorioz, bertzeak bertze. Auzolanaren gainbehera horrek, azken finean, jarduera hori kokatzen zen gizarte-antolakuntzaren desagertzea adierazten du.

## AUZOLANA, EUSKAL KULTURAREN SUSTRATU GISA

Auzolana azaltzeko baliagarria dela iritzita ezagutarazi nahi izan dugu sistema hori kokatzen den gizarte-antolakuntza; bide batez, historikoki euskal jendartearen indarrean izan diren elementu batzuen balioa azpimarratu nahi izan dugu, horixe baita gure helburua: auzolanak eta horrekin batean, bertze sistema zenbaitek ere, duten balioa aitortzea, hori aintzat hartuz egungo erronkei erantzuteko ere baliagarriak direla adierazteko.

Azaldu dugun gizarte-antolakuntzak gainbehera egin zuen, eta egun guztiz bertzelako gizarte-eredua dugu. Hala ere, puntu honetara ailegatuta, eta beti ere auzolana ardatz hartuta, gure gizartean berezko elementu zenbait antzematen ditugula azalduko dugu orain.

Ohiturazko auzolana galdu egin da toki aunitzetan. Bertze batzuetan bizirik dago, eta bertze aunitzetan, berreskuratu egin da. Baina gizartea aldatu den moduan, auzolana ere eraberritu egin da, eta itxura arras ezberdinak hartu ditu: Herri eta auzo bestak auzolanean antolatzen dira Euskal Herriko leku aunitzetan; euskararen aldeko edo presoekiko elkartasunezko jaialdiak auzolan erraldioen bidez egiten dira; gazteak auzolanean elkartzen dira euren guneak prestatzeko eta jarduerak antolatzeko; auzolan berezian eraiki da, halaber, berezko euskal hezkuntza (ikastolak), irakasle eta gurasoen ahaleginari esker, eta bertze hamaika adibide ere aipa genitzake auzolanak egungo euskal gizartean duen indarraren erakusle.

Nolabait ere, elkarlana eta elkartasuna, auto-antolakuntzarako gaitasuna, konpromisoa eta ardura, euskal gizartean bizi-bizirik dauden balioak dira, eta guk ez dugu dudarik: historikoki euskal jendarteak eratu duen gizarte-ereduaren ondarea dira horiek.

Kooperatibagintzan halako jarduera oparoa, gizarte-gaietan dagoen konpromisoa, munduko herriekiko elkartasun-aktibismoa, odol eta organo emaile kopuru handia, berezko kultura aberatsa sortzeko eta sustatzeko mugimendua... ondare horren adierazpena dira.

Auzolanean, eta orohar, auzolanak bere baitan biltzen dituen balioen arabera jokatzeko, kultura-izaera bati dagozkio, arestian aurkeztu dugun gizarte-antolakuntza sortzeko gai izan zen kultura edo herri-izaerari, hain zuzen ere.

Ez dagokigu orain kultura hori aztertzea, baina horren hainbat ezaugarri azaldu nahi genituzke, auzolanaren gai hau hobeki ulertarazteko.

Juan Antonio Urbeltz dantzari eta herri-kultura ikertzaileak dioenez, historikoki dantzak funtzio-sozial garrantzitsuak bete ditu; bai euskal gizartean, eta baita Europa osoan ere, munduko gainerako lekuetan bezala. Euskal Herriko dantzei dagokienez, horietako zenbait gazteak trebatzeko egiten zirela dio egile honek; zaulitasuna, abilezia, adimena, mugimenduen azkartasuna eta bertze hainbat gaitasun landu izan dira dantzen bidez. Horiez gainera, herri osoak parte hartzeko dantzak ere egin izan dira, kohesio soziala edo talde-kohesioa jorratzeko helburuz. Urbeltzek diotenaren ildoan, gure ustez horrek zerikusi zuzena izan du Batzarra

oinarrizko erakundetzat zuen gizarte-antolakuntzarekin, talde-kohesioa lantzea ezinbertzekoa baita talde gisa funtzionatu nahi bada.

Euskal jendartean taldean antolatzeko, taldean aritzeko eta ospatzeko joera ukaezina da. Hasi gizarte-harremanetan hain garrantzia haundia izan duten -edo zenbait lekutan, oraindik duten- kuadriletatik eta egun indarrean dauden gisa guztietako elkarreeraino, euskal jendea talde gisa eratzen dela erran dezakegu.

Taldean eratzekoan, berdintasunezko harremanak gailentzen dira. Urbeltzek aipatzen dituen zenbait dantzetan, horiek biribilean osatzen dira, hasiera/amaiera gabe, eta beraz, berdintasunezko jarreran. Soka-dantzetan adibidez, horietan Aureskua eta Atzeskua daude, sokaren bi muturrak ixten dituztenak, eta nolabait ere zuzentze lanak irudikatuko lituzkete; baina ez inola ere aginte lana, gainerakoen maila berean daude-eta.

Egileak Azeri-dantza horren adibidetzat jarri izan digu: Dantza horretan aitzinean doana gibelera joaten da, haren ondorengoa aitzinera ateraz; horrela etengabe aldatuz, ezinezkoa da zein den lehendabizikoa (burua) eta zein amaiera (buztana) jakitea. Azeriak ere joko hori egiten omen du, muturra isats-azpian sartu eta bere baitan bueltaka, hegazti harraparia nahasteko. Dantza honekin egitura-finkoen falta irudikatzen da, anabasa (kaos-a). Bertze euskal dantza batzuk ere, erabat irregularrak izaki, anabasarekin lotzen ditu egile honek. Ez dago egitura zurrunik (hierarkiarik), kide guztiak parean daude, eta kanpotik ikusezina den barne-antolakuntza da taldea egituratzen duena.

Gure ustez, horrekin zerikusia izan dezake bat bateko auto-antolakuntzarako euskal gizartean dagoen gaitasunarekin; hierarkiarik gabeko antolakuntza da, nolabait ere taldean aritzeko berezko joera batean barneratuta ageri dena. Horixe erakusten digu auzolanak berak.

Taldean aritze hori, dantzetan ezezik, hainbat musika-jokotan edo kiroletan ere antzematen dugu. Jakina da euskal kulturean lana eta besta estu lotuta daudela, eta segur aski hori hala izaten laguntzen du lana taldean egiteak. Hau da, lanean aritzeko elkartzean, elkartze hori bera gozagarria da, eta hala erraza da besta-giroa sortzea. Musika-jokoei dagokienez, Kirikoketa, Toberak, Ote-jotzea eta bertze batzuk erakusten dutenez, sagar-, harri- edo ote-jotze lanetan talde-lana koordinatu eta nekea aritzeko erritmo-jokoak sortzen ziren, eta behin lanak amaituta, musika-joko hori plazara ateratzen zen, lanak amaitu zirela iragarri eta auzoak elkartzean, hori ospatzeko. Txalaparta bera erritmo-jokoa da, zuzenean lan jakin batekin lotuta ez badago ere, eta ezaguna da gizarte-ekitaldi edo ospakizunetan izan duen -eta duen- garrantzia. Herri-kirolak eta estropadak ere lanarekin lotutako ospakizun gisa ulertzen ditugu.

Paskual eta Azparren egileek euren artikuluan (lehenago aipatu duguna) diotenez, <<auzolana kideen arteko berdintasuna azpimarratzen duten gizarteei dagokie>>. Eta horrela ulertzen omen zuen Barandiaranek ere, Egiptoko piramide izugarriak garai beretsukoak diren euskal eraikuntza megalitikoekin alderatzean: Egiptiarrek ejertzito handiak, ehun milaka esklabu eta faraoiak jainkotzea beharrezko zituzten; hemen, aldiz, nagusigo handirik eratu ez zuen -eta beraz, berdinzaleagoa zen- gizarte-eredu bat antzematen dugu.

Talde gisa eta berdintasunezko harremanetan antolatzea emakumearen bidez irudikatzen eta transmititzen den mundu-ikuskeraren eta kulturarekin lotzen dira. Aunitz dira emakumeak euskal gizartean izan duen garrantzia aztertu dutenak, eta horietatik guk Mari Carmen Basterretxearen ikerketa aipatu nahi dugu. Berak, Auzolan. Cultura Vasca lanean, Mari biziaren sortzailetzat gurtzen zuen eta emakumea kultura-transmititzailerik gisa ardatz zuen euskal gizartea ezagutarazten du. Gizon-emakumeen arteko orekan eta batzuen eta bertzeen arteko berdintasunezko harremanetan eratutako gizarteari buruz mintzo da, zuzentasunaren eta elkartasunaren gisako balioak lehenesten zituena, eta Estatua-

Eliza botereak jazarri duena, XVI. Mendeko sorginkeriaren aurkako prozesuarekin hasi eta egungo gizarte eredu neoliberala ezartzeraino.

Bere erranetan gizakion beharrianak asetzeko helburua duten gizarte-eraldaketak planteatzeko orduan ezinbertzekoa da kultura eta balioak jorratzea, eta horretarako lagungarria izan daiteke gure sustriak, euskal kultura, zer izan den ezagutu eta beharrezkoak diren elementuak berreskuratzea. Auzolana zer izan den eta zer den ulertzeko, eta egun lanabes gisa erabiltzeko ere, guri garrantzitsua iruditzen zaigu bere oharpena.

Auzolana ohiko lan-sistematizat izan duen gizarte-antolakuntza azaltzearekin eta antolakuntza hori eratu duen gizarte-ereduaren balioek osatzen duten euskal kultura bat izan dela -zenbait ezaugarri irauten badute ere ia erabat desagertu baita- erratearekin amaitutzat ematen dugu "Auzolana eta Herrigintza. Begirada historikoa" solasaldi hau.

-----

### **Kredituak eta baimenak.**

Egilea: Jasone Mitxeltoena

Data: 2011ko uztaila.

Baimena: Creative Commons [Aitortu-PartekatuBerdin 3.0](#)

Oharra: material hau interesa duen edonoren esku jartzen da Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 3.0 lizentziarekin. Lizentzia honekin edukia kopiatu, banatu eta erakutsi ahal izango dituzu, ondorengo baldintzak beteaz:

- Edukiaren jatorrizko egilea aipatu behar duzu.
- Lanaren kopia zein banaketa askea da.
- Lan eratorriak, jatorrizko egiletza aitortzeaz gainera, baimen (lizentzia) berdina izan beharko du.